# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2019ko urriaren 30a | 30. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—2019ko maiatzaren 26ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# 2019ko maiatzaren 26ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak fiskalizazio-txostena egin du, 2019ko maiatzaren 26ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzkoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 2019ko maiatzaren 26ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Helburua eta norainokoa (4. or.).

II.1. Helburua (4. or.).

II.2. Norainokoa (4. or.).

**III.** Hauteskundeetako emaitzak eta gehieneko diru-laguntzak (6. or.).

III.1. Hauteskundeetako emaitzak (6. or.).

III.2. Hauteskundeetako gehieneko dirulaguntzak (6. or.).

III.3. Hauteskunde-gastuen mugak (7. or.).

III.4. Dirulaguntzen aurrerapena (7. or.).

**IV.** Iritzia (8. or.).

**V.** Konklusioak eta gomendioak (9. or.).

V.1 Konklusio orokorra (9. or.).

V.2. Alderdi politikoek aurkeztutako dokumentazioa (9. or.).

V.3. Hauteskunde-gastuak eta formazio politikoen dirulaguntzak (10. or.).

V.4. Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen zuzentasuna (11. or.).

V.4.1. Navarra Suma (11. or.).

V.4.2. Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE (13. or.).

V.4.3. Geroa Bai (15. or.).

V.4.4. Euskal Herria Bildu (17. or.).

V.4.5. Podemos-Ahal Dugu (19. or.).

V.4.6. Izquierda-Ezkerra (21. or.).

I. eranskina. Aplikatzekoa den lege-esparrua (24. or.).

II. eranskina. Hauteskunde-gastuen eta -dirulaguntzen laburpen-taula (25. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoa betez, Kontuen Ganberak txostena egin du Foru Komunitatearen dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak bete dituzten edota dirulaguntza horien kargurako aurrerakinak eskatu dituzten alderdi politikoen hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruz.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2019rako onetsi zuen jarduera programan sartu zen, eta 2019ko abuztuan egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osaturiko talde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

2019ko apirilaren 17an, Kontuen Ganberako lehendakariak jarraibide bat onetsi zuen, fiskalizazio horri aplikatu beharreko irizpide teknikoak zehazte aldera. Jarraibide hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratu zen, eta halaber bidali zitzaien Hauteskunde Batzorde Probintzialari zein, hauteskunde-araudian aurreikusitakoarekin bat, Nafarroako Kontuen Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztera behartuta dauden talde politiko guztiei.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne; bigarrenak lanaren helburuak eta norainokoa biltzen ditu; hirugarrenean hauteskundeetako emaitzak eta gehienezko dirulaguntzak deskribatzen dira; laugarrenak hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko iritzia jasotzen du eta bosgarrenean konklusioak eta aholkuak azaltzen dira. Horretaz gain, bi eranskin jasotzen dira; bata, aplikatzekoa den legediarekin, eta bestea hauteskundeetako gastu eta dirulaguntzei buruzko laburpen-taula bat da.

Eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan lagundu digun formazio politikoetako langileriari.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

### II.1. HELBURUA

Lan honen helburua da iritzia ematea Foru Komunitatearen dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak bete dituzten edota dirulaguntza horien kargurako aurrerakinak eskatu dituzten alderdi politikoek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen legezkotasunari buruz, Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari haien arauzkotasunaren berri ematea eta, kasua bada, dagokion dirulaguntzaren ukapena edo murrizketa proposatzea.

### II.2. NORAINOKOA

Fiskalizazioa 2019ko maiatzaren 26ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzkoa da soilik. Hauteskunde horiekin batera udal hauteskundeak eta Europako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren, baina horien fiskalizazioa Kontuen Auzitegiaren eskumenekoa da.

Lanak barne hartu du alderdi politikoek, federazioek, koalizioek eta hautesle-elkarteek Kontuen Ganberari igorri beharreko hauteskunde-gastu eta diru-sarrerak, Nafarroako Foru Komunitateko dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzea lortu dutelako beren hauteskunde-emaitzen ondorioz edota dirulaguntzen aurrerapena eskatu badute, lehenago lortuak zituztelako antzeko hauteskunde-prozesu batean.

Zehazki, eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak –eta hark aurreikusten ez duen orotan Nafarroan aplikatzekoa den ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Araubide Orokorrarenak– agindutakoa betetzeko, lanaren funtsa izan da nagusiki honako gai hauek fiskalizatzea:

*Gai orokorrak*

- Egiaztatzea betebehar hori duten formazio politiko guztiek hauteskundeetako kontabilitate xehakatua eta dokumentatua aurkeztu dutela Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritako epean.

- Berrikustea kontabilitate-informazioa eta entitate finantzarioetan irekitako kontuak Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei lotuak direla oso-osoki.

***Diru-sarrerak***

- Egiaztatzea hauteskunde-gastuak ordaintzera bideratutako funts guztiak, edozein dela ere haien jatorria, hauteskundeetarako kontu korrontearen bidez helarazi direla.

- Egiaztatzea bete egin dela pertsona fisiko zein juridikoei ezarritako muga, zeina baita alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bati eta berari 10.000 euro baino gehiagoko funtsak emateari buruzkoa.

*Gastuak*

- Egiaztatzea ezen hauteskunde-gastuak egin direla noiztik eta hauteskundeetarako deia egin zenetik eta hautetsiak aldarrikatu ziren egunera bitartean.

- Ziurtatzea formazio politiko fiskalizatuek deklaraturiko hauteskunde-gastuak aplikazio-araudian ezarrita daudenak direla, kontabilitate-, merkataritza- eta zerga-arauek eskaturiko funtsezko betebeharrak betetzen dituztela eta hauteskundeetarako kontu korrontearen bidez ordaindu direla.

***Mugak***

- Kontrolatzea alderdi edo koalizio politikoek ez dituztela honako muga hauek gainditu:

a) Foru Legeko 43.1 artikuluak hauteskunde-gastuetarako ezarririko gehienezko muga. Zenbateko hori Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emandako apirilaren 3ko 44/2019 Foru Aginduak eguneratu zuen.

b) Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 55. eta 58. artikuluek ezarritako mugak, egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako kanpo-publizitateko gastuak direla-eta. Ezartzen dute muga horiek hauteskunde-gastuen mugaren ehuneko 20koak direla.

c) Hauteskundeetarako gutun-azalen eta boto-txartelen edo propaganda eta publizitatearen igorpenen kopuruak, alderdi politikoek zuzenean egiten dituztenenak, ez duela gainditzen gehieneko hautesle-kopurua.

• Halaber, egiaztatuko da jaso beharreko dirulaguntzek, guztira, ez dutela gaindituko justifikaturiko hauteskunde-gastuen zenbatekoa.

## III. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ETA GEHIENEKO DIRU-LAGUNTZAK

### III.1. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

2019ko maiatzaren 26an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekua lortu duten talde politikoek eskuratutako botoak eta eserleku kopurua –hautesle kopurua 485.405ekoa izan zen–, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 2019ko maiatzaren 29ko Aldarrikapen Aktaren arabera:

| Alderdia | Botoak | Eserlekuak |
|---|---|---|
| Navarra Suma | 127.346 | 20 |
| Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE | 71.838 | 11 |
| Geroa Bai | 60.323 | 9 |
| Euskal Herria Bildu | 50.631 | 7 |
| Podemos-Ahal Dugu | 16.518 | 2 |
| Izquierda-Ezkerra | 10.472 | 1 |
| Guztira | 337.128 | 50 |

### III.2. HAUTESKUNDEETAKO GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emandako apirilaren 3ko 44/2019 Foru Aginduak eguneratzen du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 44. artikuluan xedaturikoa, eta ezartzen ditu Nafarroako Parlamenturako 2019ko hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle batasunei Nafarroako Foru Komunitateak emanen dizkien dirulaguntzen zenbatekoak. Honakoak dira dirulaguntza horiek:

• Hauteskundeetako emaitzengatik:

a) 12.300 euro, lorturiko jarleku bakoitzagatik.

b) 0,98 euro boto bakoitzagatik, gutxienez jarleku bat lortzen duten hautagai-zerrendentzat.

• Hauteskundeetarako propaganda, gutun-azalak eta boto-txartelak hautesleei zuzenean bidaltzearen kostuagatik, 0,25 euro hautesle bakoitzeko, gutxienez ere jarleku bat lortu duten hauteskunde-zerrendei, jardun horretan egiazki aritu direla betiere justifikatuta.

Halaber ezartzen da inola ere ez dela dirulaguntzarik emanen egiazki eginiko hauteskunde-gastuen zenbatekoa gainditzen duenik.

Hauexek izanen lirateke Nafarroako Parlamenturako 2019ko hauteskundeetan jarlekua lortu duen formazio politiko bakoitzari legozkiokeen gehieneko dirulaguntza teorikoak, kontuan hartuta aurreko hauteskundeetako emaitzak eta haien araberako dirulaguntzak:

Gehieneko dirulaguntzak (eurotan)

| Alderdia | Hauteskundeetako emaitzengatik | | | Hauteskunde-propaganda igortzeagatik[1] | Gehieneko dirulaguntzak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Jarlekuengatik | Botoengatik | Guztizkoa | | |
| Navarra Suma | 246.000 | 124.799 | 370.799 | 121.351 | 492.150 |
| Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE | 135.300 | 70.401 | 205.701 | 121.351 | 327.052 |
| Geroa Bai | 110.700 | 59.117 | 169.817 | 121.351 | 291.168 |
| Euskal Herria Bildu | 86.100 | 49.618 | 135.718 | 121.351 | 257.069 |
| Podemos-Ahal Dugu | 24.600 | 16.188 | 40.788 | 121.351 | 162.139 |
| Izquierda-Ezkerra | 12.300 | 10.263 | 22.563 | 121.351 | 143.914 |
| Guztira | 615.000 | 330.386 | 945.386 | 728.106 | 1.673.492 |

[1] Hautesleria osoari hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gehieneko dirulaguntza.

## III.3. HAUTESKUNDE-GASTUEN MUGAK

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emandako apirilaren 3ko 44/2019 Foru Aginduak eguneratu egiten du 16/1986 Foru Legearen 43.1. artikuluan xedaturikoa, eta finkatzen du alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bakoitzak egin ahalko duen hauteskunde-gastuaren muga, kenduta hautesleei hauteskundeetarako propaganda, gutun-azalak, boto-txartelak edo hauteskunde-publizitateko beste osagaiak zuzenean bidaltzearen gastuak, 424.795 eurokoa izanen dela.

Muga orokor horretaz gain, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 55. eta 58. artikuluetan mugatu egiten dira kanpoko publizitatearen eta egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizitate-gastuak, aipaturiko hauteskunde-gastuaren gehieneko mugaren ehuneko 20an; hau da, 84.959 euro.

Alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteek hauteskunde-prozesuetatik –tokikoa, Europakoa eta autonomia erkidegokoa– bitan edo hirutan aldi berean parte hartzen duten kasuetan, hauteskunde-gastu horien muga izanen da, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 131.2. artikuluaren arabera, formazio politikoaren aldekoena suertatzen dena hautesprozesu horietarako mugen aplikazioan, gehi Gorte Nagusietarako hauteskundeetarako ezarritako legezko gastu-mugaren ehuneko 25.

Kontuen Auzitegiari dagokio egiaztatzea hauteskunde-prozesu desberdinetara aldi berean aurkezten diren formazio politikoen osoko gastu-muga betetzen ote den.

## III.4. DIRULAGUNTZEN AURRERAPENA

Nafarroako Gobernuak, 2019ko maiatzaren 8ko eta abuztuaren 21eko erabakien bidez –erabaki horiek hartu ziren Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 45.1. eta 46.2. artikuluekin bat– bi aurrerapen eman ditu: 2015eko hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren ehuneko 30ekoa eta 2019ko hauteskundeetarako ezarritako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45ekoa.

Hona hemen aurrerapen horien xehetasuna, formazio politikoen arabera:

| Alderdia | % 30eko aurrerapena | % 45eko aurrerapena | Aurrerapenak, guztira |
|---|---:|---:|---:|
| Navarra Suma | 109.863 | 166.860 | 276.723 |
| Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE | 71.535 | 92.566 | 164.101 |
| Geroa Bai | 69.836 | 76.417 | 146.253 |
| Euskal Herria Bildu | 75.021 | 61.073 | 136.094 |
| Podemos-Ahal Dugu | 22.601 | 18.354 | 40.955 |
| Izquierda-Ezkerra | 34.630 | 10.153 | 44.783 |
| Guztira | 383.486 | 425.423 | 808.909 |

## IV. IRITZIA

*FORMAZIO POLITIKOEN ERANTZUKIZUNA*

Hauteskunde-administratzaileak dira formazio politikoek egindako hauteskunde-dirusarrera eta gastu guztien erantzule, bai eta horien kontabilitatearenak ere. Halaber, Nafarroako Kontuen Ganberari hauteskundeetako diru-sarrera eta gastuei buruzko kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkezteko ardura dute.

Kontabilitatea egokitu beharko zaie kontabilitate plan orokorreko printzipio nagusiei, halako moduz non fidelki islatzen diren hauteskunde-prozesuaren ekarpen eta gastuak. Halaber, barne kontroleko sistemak bermatu behar du hauteskunde-jarduera iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozko lege-urraketarik eta oker materialik gabekoa dela.

*NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzia ematea, guk eginiko fiskalizazioan oinarrituta, Foru Komunitateko dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak bete dituzten edota dirulaguntza horien kargurako aurrerakinak eskatu dituzten formazio politikoen hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruz.

Erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen oinarrizko fiskalizazio-printzipioen arabera –ISSAI-ES arauak–, eta bereziki aplikatuz ISSAI-ES 400 araua, "Legea betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarrizko printzipioak" izenekoa. Printzipio horiek exigitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoria planifika eta betearaz dezagula ere, arrazoizko ziurtasun bat lortze aldera, hauteskunde-kontabilitateak alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen araberakoak izatearen gainekoa.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatzea, eragiketen legezkotasunari buruzko auditoria-ebidentzia lortzearren. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen araberakoak dira, horren barne dela lege-urraketa esanguratsuen arriskuaren balorazioa. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak kontuan hartzen du aipatu betetzea bermatzeko beharrezkoa den barne kontrola, inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera, eta ez formazio politikoaren barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emate aldera.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du betetzeari buruzko gure auditoretza-iritzia emateko.

LEGERIAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Foru Komunitateko dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzea lortu duten formazio politikoen hauteskunde-kontabilitateak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa zaien araudiarekin.

## V. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

### V.1 KONKLUSIO OROKORRA

Formazio politiko guztiek kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztu dute, eta ez da hauteman kontabilitate-irregulartasunik edota hauteskundeetako gastu eta diru-sarreren arloan ezarritako mugen urraketarik.

Hori dela eta, Kontuen Ganberak ez du egin hauteskunde-dirulaguntzak kentzeko edo murrizteko proposamenik Nafarroako Parlamenturako 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan eserlekua atera duen ezein formazio politikorentzat, ez baita gertatu Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen 47.2 artikuluan ezarritako inguruabarrik.

### V.2. ALDERDI POLITIKOEK AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Egindako azterketatik, honako hau nabarmenduko dugu:

• Formazio politiko guztiek, Navarra Suma koalizioak izan ezik, bete dute beren hauteskunde-kontabilitatea epe barruan –2019ko uztailaren 27an amaitzen zen– Kontuen Ganberari aurkezteko bete-beharra. Navarra Sumak, arrazoi justifikatuak tarteko, 2019ko abuztuaren 7an aurkeztu du bere hauteskunde-kontabilitatea.

• Formazio politiko guztiek aurkeztu dituzte hauteskunde-kontabilitatea eta hari buruzko egiaztagiriak euskarri informatikoan, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetako kontabilitatearen fiskalizazioari buruzko jarraibidean adierazitako fitxategien izen eta euskarrien arabera.

• Alderdi guztiek adierazi dute nondik datozen funtsak, alderdiek emandako diruari dagokionez, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 126.3. artikuluan ezartzen den moduan.

• Oro har, formazio politikoek Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan adierazten diren gastu-kontzeptuei jarraikiz aurkeztu dituzte kontuak. Hala ere, hauteskunde-gastuak eta -mugak zehaztearren, beharrezkoa izan zaigu igorritako gastuak birsailkatzea.

• Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskunde-izaerakoak dira.

• Gastu arruntei dagokienez, doikuntzak egin zaizkie Navarra Sumak, Nafarroako Alderdi Sozialistak, Euskal Herria Bilduk eta Izquierda-Ezkerrak aurkezturikoei, ez baitzetozen bat Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 130. artikuluan jasotako gastu-kontzeptuekin.

Euskal Herria Bildu eta Izquierda-Ezkerraren kasuan, eginiko doikuntzek ez dute eraginik hauteskunde-emaitzengatik jaso beharrezko gehienezko dirulaguntzan; izan ere, onartutako gastuak handiagoak dira kontzeptu horrengatik dagozkien gehienezko dirulaguntzak baino.

Aldiz, Navarra Sumak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak aurkeztutako gastuei eginiko doikuntzek badute eragina alderdi politiko horiek jaso beharreko dirulaguntzan, onartutako gastuak txikiagoak baitira hauteskunde-emaitzengatik jasotzen den gehienezko dirulaguntza baino.

• Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuei dagokienez, beheranzko doikuntzak egin dira Geroa Baik eta Podemos-Ahal Duguk aurkeztutako gastuetan, gastu hori udal hauteskunde-prozesuari baitagokio.

• Navarra Suma eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren gastu arruntetan sartu dira hauteskunde-propaganda igortzeagatiko dirulaguntzaren muga gainditzen zuten gastuak edota gehienezko hautesle kopurua gainditzen zuten igorpenenak, betiere Kontuen Ganberako lehendakariak hauteskunde-gastuen fiskalizaziorako onetsitako jarraibidearen arabera.

• Formazio guztiek errespetatu dute Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko Foru Legearen 43.1. artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuaren guztizko muga, bai eta kanpoko publizitatearen eta egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizitate-gastuen mugak, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 55. eta 58. artikuluetan ezarritakoak.

• Ganbera honi eragiketa horiek jakinarazteko betebeharra duten hirugarren guztiek bete dute informazioa emateko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 133. artikuluari jarraikiz, salbu eta Navarra Sumaren bost hornitzaileren eta Geroa Bairen hornitzaile baten kasuetan.

Egungo araudiaren arabera Kontuen Ganbera honi dagokion hauteskunde-kontabilitatearen zuzentasunaren kontrola hobetzeko asmotan, hona gure gomendioak kasuko legegintza-organoentzat:

*Hauteskundeei buruzko araudia berrikusi eta garatzea, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 130. artikuluan xedatutako hauteskunde-gastuei buruzko kontzeptu, egozpen eta justifikazioa zehazte aldera.*

*Hauteskundeei buruzko araudian zehaztea, ahalik eta xehetasun handienarekin, boto paper eta gutun-azalak edo hauteskunde propaganda zuzenean bidaltzeak sortzen dituen hauteskunde-gastuengatiko dirulaguntzari egotzi ahal zaizkion gastu-kategoriak.*

*Kanpoko publizitatearen eta prentsa eta irrati pribatuetako publizitatearen gastu-mugak egokitzea informazioaren eta komunikazioen teknologia berrietara, hala nola prentsa digitala eta Interneten bestelako erabilera batzuk, eta zehaztea zer-nolako gastuak hartu behar diren kontuan legez ezarritako mugak egiaztatzeko.*

## V.3. HAUTESKUNDE-GASTUAK ETA FORMAZIO POLITIKOEN DIRULAGUNTZAK

Hona hemen formazio politiko bakoitzaren gastuak, bai eta jaso beharreko dirulaguntza ere, txosten honen III. atalean islaturiko emaitzen arabera eta aintzat hartuta legezko gastu-mugak eta eserleku bakoitzeko eta boto kopuruaren araberako gehienezko dirulaguntzak:

| Alderdia | Navarra Suma | PSN-PSOE | Geroa Bai | EH Bildu | Podemos-Ahal Dugu | Izquierda-Ezkerra | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurkeztutako gastuak, guztira | 427.001 | 190.524 | 305.248 | 256.694 | 64.462 | 188.715 | 1.432.644 |
| Onartutako gastuak, guztira | 425.911 | 188.720 | 297.861 | 254.009 | 61.925 | 186.915 | 1.415.341 |
| Jaso beharreko diru-laguntza, guztira | 425.911 | 188.720 | 245.121 | 251.584 | 48.077 | 142.536 | 1.301.949 |
| Finantzatuaren %/onartuak | % 100 | % 100 | % 82 | % 99 | % 78 | % 76 | % 92 |
| 1. aurrerapena (2015ean jasotako diru-laguntzaren % 30) | 109.863 | 71.535 | 69.836 | 75.021 | 22.601 | 34.630 | 383.486 |
| 2. aurrerapena (2019ko hauteskun-deetako emaitzen dirulaguntzaren % 45) | 166.860 | 92.566 | 76.417 | 61.073 | 18.354 | 10.153 | 425.423 |
| Kitakizun | 149.188 | 24.619 | 98.868 | 115.490 | 7.122 | 97.753 | 493.040 |

Nafarroako Parlamentuan ordezkaritza izatea lortu duten alderdi politikoek aurkeztu dituzten hauteskunde-gastuek 1.432.644 euro egiten dute guztira; horietatik, 1.415.341 euro (ehuneko 99) onartzen dira.

Nafarroako Gobernuak gastu onartu guztien ehuneko 92ko dirulaguntza ematen du; hau da, 1.301.949 euro.

Aurreko koadroan jasotako kontzeptuen xehakapenak txosten honen II. eranskinean agertzen dira.

## V.4. AURKEZTUTAKO HAUTESKUNDE-KONTABILITATEEN ZUZENTASUNA

Ondoren, formazio politiko bakoitzak egindako lanaren xehetasunak erakutsiko ditugu.

Formazio bakoitzari dagozkion dirulaguntzei buruzko tauletan, Nafarroako Gobernuaren 2019ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onetsitako aurrerakinak jaso ditugu, nahiz eta aurrerakin horiek ez diren ageri formazio politikoek aurkeztutako kontabilitateetan.

### V.4.1. Navarra Suma

Eskatutako informazio guztia duen kontabilitatea aurkeztu du formazio politikoak, horren barne dela gastuen laburpeneko egoera-orri bat, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan hauteskunde-gastuak direla-eta ezarritako sailkapenari jarraituz.

Diru-sarreren eta gastuen guztizkoak 305.863 eta 427.001 izan dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

| AITORTURIKO BALIABIDEAK | |
|---|---|
| Alderdien ekarpena | 196.000 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | 109.863 |
| Aitorturiko baliabideak, guztira | 305.863 |
| HAUTESKUNDE-GASTUAK | |
| **A) Eragiketa arruntengatiko gastuak** | |
| Aitorturiko gastuak | 320.339 |
| Diruz lagungarriak ez diren gastuak | (1.090). |
| Kontzeptu horrengatik diruz lagungarriak ez diren hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak | 345 |
| ***Onartutako hauteskunde-gastu arruntak, guztira*** | ***319.594*** |
| **B) Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak** | |
| Aitorturiko gastuak | 106.662 |
| Diruz lagungarriak ez diren gastuak | - |
| Propaganda igortzeagatiko hauteskunde-gastuak, guztira | 106.662 |
| Bidalketengatiko gehienezko dirulaguntza | 106.317 |
| Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak, kontzeptu horrengatik diruz lagungarriak ez direnak | (345). |
| Onartutako hauteskunde-gastuak, guztira | 425.911 |

• Aitorturiko baliabideak behar bezala justifikatu dira, eta hauteskunde-dirulaguntzen lehen aurrerakinetik (109.863 euro) eta koalizioa osatzen duten alderdien ekarpenetatik datoz –172.000 euro Ciudadanosek eta 24.000 euro Unión del Pueblo Navarrok–.

Nafarroako Gobernuak 166.860 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2019ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitate-igorpenaren ondoren hartu zen.

• Aurkezturiko hauteskunde-gastu guztietatik, 320.339 euro eragiketa arruntengatiko gastuenak dira eta 106.662, berriz, hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuenak. Hona hemen Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 130. artikuluko kontzeptuen araberako xehakatzea:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aurkeztuak | Onartuak eta birsailkatuak | Aldea |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutun-azalak eta oto-paperak egitea | 103.740 | 103.740 | - |
| Kaleko publizitatea | 83.436 | 83.436 | - |
| Publizitatea: prentsa eta irrati pribatuak | 72.067 | 72.067 | - |
| Bestelako propaganda eta publizitatea | 69.681 | 66.259 | (3.422). |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak giteko lokalak alokatzea | - | 16.231 | 16.231 |
| Aldi baterako langileentzako rdainketak | - | - | - |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | - | 10.106 | 10.106 |
| Posta eta zigiluak | 2.922 | 2.922 | - |
| Maileguen korrituak | - | - | - |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak iren beste gastu batzuk | 95.155 | 71.150 | (24.005). |
| Gastuak, guztira | 427.001 | 425.911 | (1.090). |

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Kontzeptuen araberako gastu-aurkezpenean haien birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

b) Onartu ez diren gastuak –1.090 euro– faktura bati dagozkio; izan ere, haren kontzeptua ez dago jasota Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan.

c) Hauteskundeetarako gutun-azalen eta boto-txartelen igorpenak gehieneko hautesle-kopurua baino gehiago dira. Hautesleen gehieneko kopuruaren gainetik aitortutako igorpenengatiko gastuak –345 euro– ez dira kontzeptu horrengatik diruz lagungarritzat hartzen eta hauteskunde-jarduera arruntagatiko gastuei gehitzen zaizkie.

d) Ez dira gainditzen indarrean dagoen foru legearen 43.1. artikuluan hauteskunde-gastuetarako ezarritako mugak, ez eta Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 55. eta 58. artikuluetan kaleko publizitaterako eta egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizitate-gastuetarako ezarritakoak ere.

- Hirugarrenen betebeharrak

10.000 euro baino gehiago fakturatu dituzten bederatzi enpresetatik bostek ez dute bete horren berri Kontuen Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

- Proposamena

Kontuen Ganberak ez du egin lortu den dirulaguntza ukatzeko edo gutxitzeko proposamenik, ez baita gertatu Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47.2. artikuluan jasota ezarritako inguruabarrik.

Navarra Suma koalizioari hauteskundeetako emaitzengatik dagokion dirulaguntza-proposamena gastu arrunt onartuei egokitu behar zaie, eta hauteskunde-propaganda igortzeagatiko dirulaguntzak kontzeptu horrengatik egiazki eginiko gastuen araberakoa izan behar du.

Horrenbestez, honakoak dira Navarra Suma koalizioari dagozkion dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Gehienezko dirulaguntza teorikoa | Onartutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 370.799 | 319.594 | 319.594 |
| Propaganda igortzeagatik | 121.351 | 106.317 | 106.317 |
| *Diru-laguntza, guztira* | *492.150* | *425.911* | *425.911* |
| - Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 30) | | | (109.863). |
| - Nafarroako Gobernuaren aurrerakina (% 45) | | | (166.860). |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 149.188 |

### V.4.2. Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE

Eskatutako informazio guztia aurkeztu du Nafarroako Alderdi Sozialistak, bai eta Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoko 130. artikuluan ezarritakoaren araberako gastuen laburpena ere. Kontzeptuen araberako gastu-aurkezpenean haien birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

Formazio honek aurkeztutako hauteskundeetako diru-sarreren eta gastuen guztizkoa 190.524 eurokoa da. Ondotik ematen ditugu haiei buruzko xehetasunak:

| AITORTURIKO BALIABIDEAK | |
|---|---|
| Alderdien ekarpena | 118.989 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | 71.535 |
| Aitorturiko baliabideak, guztira | **190.524** |
| HAUTESKUNDE-GASTUAK | |
| **A) Eragiketa arruntengatiko gastuak** | |
| Aitorturiko gastuak | 125.656 |
| Diruz lagungarriak ez diren gastuak | 1.804 |
| Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak, kontzeptu horrengatik diruz lagungarriak ez direnak | 37 |
| ***Onartutako hauteskunde-gastu arruntak, guztira*** | ***123.889*** |
| **B) Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak** | |
| Aitorturiko gastuak | 64.868 |
| Diruz lagungarriak ez diren gastuak | - |
| Propaganda igortzeagatiko hauteskunde-gastuak, guztira | 64.868 |
| Igorpenengatiko gehienezko dirulaguntza | 64.831 |
| Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak, kontzeptu horrengatik diruz lagungarriak ez direnak | (37). |
| Onartutako hauteskunde-gastuak, guztira | 188.720 |

- Aitorturiko diru-sarrerak behar bezala justifikatu dira eta hauteskunde-dirulaguntzen lehen aurrerakinetik (71.535 euro) eta alderdiaren ekarpenetatik datoz (118.989 euro).

Nafarroako Gobernuak 92.566 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2019ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

• Aurkezturiko hauteskunde-gastu guztietatik, 125.656 euro eragiketa arruntengatiko gastuenak dira eta 64.868, berriz, hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuenak. Hona hemen gastu horien xehakapena, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 130. artikuluko kontzeptuen araberakoa:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aurkeztuak | Onartuak eta birsailkatuak | Aldea |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea. | 64.868 | 64.868 | - |
| Kanpoko publizitatea | 17.087 | 17.087 | - |
| Publizitatea: prentsa eta irrati pribatuak | 20.953 | 20.953 | - |
| Bestelako propaganda eta publizitatea | 24.354 | 39.740 | 15.386 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 19.217 | 1.177 | (18.040). |
